

## **Lurraldetasunaz ari garenean, zergatik eta zertaz ari gara?**

Eusko Ikaskuntzaren ezagumendu, esperientzia eta hausnarketatik, eta gizarteak berak Eusko Ikaskuntzari luzatutako eskakizun batetik, eratortzen den proiektua da.

Eusko Ikaskuntzak, bere xedea eta helburu nagusiak oinarritzat hartuz, DENOK GAI izeneko prozesu parte-hartzailea jartzen du abian euskal gizartearekin eta, muina diren eragileekin batera, erronka garrantzitsuenak eta premiazkoak identifikatzeko.

Prozesuaren emaitza, gizarteak berak erantzun beharreko premien identifikazioa izan zen. Premia horien artean egituraketa sozio-politiko berri baterantz bideratuko gaituen prozesu bateratzaile abian jartzea izan zen. Euskal Herriko kokapen juridiko-administratibo-instituzionala Europan, lurraldeen arteko uztardurak eta sare eraiketa da Eusko Ikaskuntzari eskatzen zaion aztergaia.

Gizarteak, eskakizun honen bidez, Eusko Ikaskuntza jartzen du aniztasunaren bilgune gisa eta, horretarako, izandako aurrekariak gogorarazten ditu: batez ere, Lizarrako estatutuak bezala ezagutzen den 1931ko Estatuto General del Estado Vasco.

## **Lurraldetasuna**

Lurraldetasuna Euskal lurraldeen arteko elkarren ezagutza eta sinergia sozio-ekonomiko eta kultural egokiak bideratzeko tresna politiko aproposen sorrerarekin dago lotuta. Euskal lurraldeak zeharkatzen dituzten ardatzak asko dira: kulturalak, sozio-ekonomikoak, sinbolikoak, giza-garapenari eta balio kolektibo partekatuei dagozkionak.

Ziurgabetasunaz, baina era berean, aukeraz beteriko garaia bizi dugu. Testuinguru honetan, hausnarketa inguruabar globalean kokatu beharrean gaude eta Euskal Herria XXI. mendeko munduan egokitzeko behar dituen tresnak, ikusmoldeak, eredu politiko, sozial eta ekonomikoak aztertzeke, eta, batez ere, modu partekatuan garatzeko momentuan gaude. Bestalde, demokratizazioaren aroan egonik, giza garapena eta honekin lotutako gobernantza ezin uler daitezke kapitalaren, lurraldearen eta herritarren arteko mihiztaketa berrietan arreta jarri gabe. Aro honetan gizarte zibilean jarri behar dugu ñabardura gobernantza eredu berriak sortzeko helburuarekin.

Honetan oinarrituta, Eusko Ikaskuntzak egungo euskal egituraketa sozio-politikoaren baitan funtzionalki eta estrukturaliki bizi ditugun aukerak, gabeziak, premiak eta xede berriak deskribatzeko prozesua jarri zuen abian 2016an.